

ERANTZUN ALA BIDEA IREKI

Ofizioka ari garela, bi kideen ardura da solasaldia ez amaitzea.
 Bien ardura da hizketan jarraitzeko bidea ematea elkarri.
 Horretarako, bertso bakoitzean bi aukera izango ditugu.
 Kideari erantzutea edo bidea irekitzen jarraitzea (erreferentzia,
 galdera, argudio, pertsonaia, ekintza berriak ateraz hizpidera).



GO!AZEN



Estitxu
Arozena
Albizu



Azpimarratu dezagun: Zein puntutan ari dira erantzuten kideak esanari?
 Eta zein puntutan ari dira bidea irekitzen?

Izarok Lurri gaur aitortu dio lehendabiziko muxua
 eman duela asteburuan.



Doinua:

Igaran egun batez
Zortziko txikia

Izaro

Go!azeneko Julen
 ta Nahian **antzera**
 muxu bat eman eta
 nabil **alegera**.
 Orduz geroztik biak
 gabiltza **batera**
 bizitza osorako
 izango **ote da?**

Lur

Orain bizi itzazu
 hainbat une **eder**
 zuk nahi baduzu eman
 muxu mila **bider**
 baina ez zazu flipatu
 baietz jakin **laster**
 bizitza osorako
 ez dagola **ezer**.

Izaro

Benetakoa zer den
 zaude **ohartzeke**
 nire sentimenduez
 fidatu **naiteke**.
 Amets hau toperaino
 nahiko nuke **bete**
 Basakabira ere
 joango **nintzateke**.

Lur

Basakabin bete nahi
 zenuke **ametsa**
 kristau udaleku da
 ez zazula **pentza**.
 Zuzenen gurutzea
 nahiz sotana **beltza**
 ta ez duzu ezagutzen
 herriko **apeza**.

Izaro

Zure iritziz nabil
 uste **ustelean**
 ez nauzu zapuztuko
 ezkorren **elean**.
 Mila bihotz marraztu
 ditut **arbelean**
 txolarreak sentitzen
 ditut **sabelean**.

Lur

Txorien izenekin
 nolako **pasada**
 hala galaraziko
 didazu **patxada**.
 Maurizia ta Leon
 loroen **gisara**
 gauzak errepikatzen
 abilena **zara**.